

Domekahonetako Ebanjelioa...

BEHARDUGUN BERRIA

2012ko otsailaren 5ean

Urteko 5. Igandea B

Markos 1,29-39

Jesus sinagogatik atera eta Simon eta Andresen etxera joan zen zuzenean, Santiago eta Joanekin. Simonen amaginarreba oheratua zegoen sukarrez; berehala, hartaz hitz egin zioten Jesusi. Joan zitzaion ondora, eskutik hartu eta jaikiarazi egin zuen.

Sukarrak alde egin zion eta zerbitzatzen hasi zitzaion.

Arratsean, eguzkia sartu ondoren, gaixo eta deabrudun guztiak eraman zizkioten Jesusi. Herri osoa bildu zitzaion atarian. Eta hark gaixo asko sendatu zituen, edozein zela ere haien gaitza, eta deabru asko bota ere bai. Deabruak ez ziren hitzik egiten uzten, bazekiten-eta nor zen.

Goizean goiz, oraindik ilun zegoela, Jesus herritik irten eta bazter bakarti batera joan zen; han otoitzean ari zen. Simon eta lagunak haren bila hasi ziren; aurkitzean, esan zioten:

-Jende guztia zure bila dabil.

Hark, ordea, erantzun:

-Goazen beste norabait, inguruko auzoetara, horietan ere berriona hots egitera, horretarako atera bainaiz.

Eta Galilea guztian barrena ibili zen, hango sinagogetan berriona hots egiten eta deabruak botatzen.

GURE ETXEKO ATEAN

Jose Antonio Pagola

Kafarnaumgo sinagogan, espiritu gaiztoak hartua den gizon bat sendatu du Jesusek goizean. Orain, esaten digu ebanjelariak «*sinagogatik*» irtenik, Simonen eta Andresen «*etxerantz*» doala. Adierazpen hau garrantzizkoa da, zeren, Markosen ebanjelioan, etxe honetan gertatzen denak badu beti irakaspen bat kristau-elkarteentzat.

Judu-erlijioaren leku ofizial den sinagogari axola handirik eskaini gabe, etxera doa Jesusek, pertsona maiteenen ondoan eguneroko bizi ohi den horretara. Etxe horretan joanen da garatzen Jesusen familia berria. Kristau-elkarteek gogoratu behar dute ez direla legea bizi den leku erlijioso, baizik Jesusen inguruan modu berrian bizitzen ikasten den sutondo.

Etxean sartzean, Simonen amaginarrebaz hitz egin diote ikasleek. Ezin atera izan zaio hura atera, ongietorri egitera, gaixo baitago ohean sukarrez. Jesusek ez du besterik behar izan. Bigarren aldiz hautsiko du larunbata egun berean. Jendearen bizitzak du axola harentzat, eta ez erlijio-betebeharrak. Xeheki deskribatzen du kontakizunak gaixo den emakumearekin egin dituen keinu guztiak.

«*Hurbildu zitzaion*». Beti egin ohi duen lehenengo gauza da: sufritzen ari denagana hurbildu, hari aurpegira hurbiletik begiratu, haren sufrimena partekatu. Gero, «*eskutik hartu zuen*». Emakumea ukitu du. Ez zaio axola hori egitea debekatzen duen garbitasun-araua. Emakume horrek bere ahalmen sendatzailea senti dezan nahi du. Azkenik, «*jaikiarazi zuen*», zutik jarraraziz eta bere duintasuna itzuliz.

Horrela egon ohi da Jesus beti bereen artean: gu jaikiarazteko eskua luzatuz, bizia arnasten digun hurbileko adiskide bezala. Zerbitzari izan du Jesusek soil-soilik, eta ez zerbitza dezaten. Horregatik, sendatua izan den emakumea ere guztiei **«zerbitzitzen»** hasi da, Jesusengandik ikasi duenez. Jesusen jarraitzaileek elkar onartuz eta elkar zainduz behar dute bizi.

Alabaina, oker handia izango litzateke hau pentsatzea: kristau-elkarteak bere kideez bakarrik arduratuz bizi daitekeen familia dela, eta besteen sufrimenaz axola izan gabe. Kontakizunak dio ezen, egun horretan berean, **«eguzkia sartzean»**, larunbata bukatua denean, klase guztietako gaixoak eta gaitzen batek jotakoak daramazkiotela Jesusi.

Buruan ondo sartu beharko genuke kristauak pasadizo hau. Gauaren iluna iristean, populu guztia **«pilatu da ate aurrean»** beren gaixoekin. Sufritzen ari direnen begiak eta esperantza Jesus dagoen etxeko atearen bila doaz. Orduan bakarrik erakartzen du Elizak sufritzen ari den jendea egiaz: barruan bizi za sendatzen eta sufrimena arintzen ari den Jesus aurkitzen duenean. Gure elkarten ateetan jende asko ari da sufritzen. Ez dezagula ahantzi.